



Tokio, urtebetera

Uretan eta uretatik kanpo lau urte hauetan bizitakoaz solastu gara Maialen Chourraut palistarekin / 6-8

Aurrekontuen ordeez

Udalbatzarrak 2,7 milioi euroko kreditu aldaketa bat onetsi du laguntza eta inbertsioetarako / 2

Astebeteko etenaldia eta gero, uztailaren 27an Ttakunen Udako Txokoetara itzuliko dira haurrak / 5

Larunbat honetan jokatu du Añorgak Reto Iberdrola ligara igotzeko kanporaketa, Madrilen / 10

UDAKO TXOKOAK POLTSA SALGAI

jalgi
kate
antzokia

TABERNAN SALGAI



**Ttā
kun**
Kultur Ekartzea

txintxarri

Hurrengo Txintxarri paperean uztailaren 30ean (osteguna) argitaratuko dugu, ikasturteko azkena izango da.

Kreditu aldaketa, laguntza eta inbertsioetarako

Udalbatzarrak onartu du aurrekontuak luzatzea eta 2,7 milioiko kreditu bat aldatzea, pandemia hasi zenetik behin baino gehiagotan egin bezala. PSE-EEk alde bozkatu du eta abstenitu egin dira korporazioko beste alderdi guztiak. Udalak irailean sinatu nahi ditu hitzarmenak elkarteekin

Iñigo Gonzalez Sarobe

COVID-19aren pandemia hasi zenetik laugarrenez, kreditu gehigarri bat aldatzea onetsi du udalbatzarrak, 2.797.522 eurokoa. Herrian aurten "funtsezkoak" diren inbertsio batzuk egitea ahalbidetuko du horrek, eta familiei eta herriko elkartei diru laguntzak ematea, euren jardunarekin jarrai dezaten. PSE-EEren zazpi aldeko bozka eta EH Bildu, EAJ eta ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puede alderdien zortzi abstentzioekin atera da aurrera proposamena. Txus Alonso (PSE-EE) eta Jon Martin (EH Bildu) zinegotziek ezin izan dute saioan egon.

Kreditu aldaketaren inguruko boto azalpenean parte hartu dute alderdi guztiek. David Ares (ELOP): "Ez daukagu arrazoirik aurka bozkatzeko, baina harritu egin gaitu planteamendu honek, duela egun gutxira arte esaten zitzaigulako 2020ko aurrekontuak ixtear eta aurkeztear zeudela. Hori esanda, baloratzen dugu txostenean jasotzen diren inbertsioak koadratu eta



Ezohiko bilkura egin du udal korporazioak pleno aretoan. TXINTXARRI

finantzatzeko Udal Gobernuak eta teknikariek egin duten lana".

EH Bilduren iritziz, "aukerarik egokiena" da aurrekontuak luzatzea eta 2021ekoak "garaiz" prestatzen hastea. Kreditu aldaketa, ordea, ez da anbizioa koalizio subiranistarentzat, Uxue Loinaz zinegotziak azaldu legez. "Ez dugu uste herriko elkarten beharrei erantzuten zaienik, gabeziak ditu eta bultzada bat behar du". EH

Bilduk jakinarazi du Udal Gobernuari proposatu diola konponbide bat ematea herriko elkarteek espazioekin dauzkaten arazoei, eta kreditu aldaketa honetan jaso ez duen arren, 2021eko aurrekontuetara begira aztertzea konprometitu dela.

"2020ko aurrekonturik ez egotea eta kreditu gehigarrien bidez aritzea ez da kudeaketa onaren seinale", EAJko zinegotzi Estitxu

Alkortak azpimarratu duenez. COVID-19aren pandemia martxoan iritsi zela eta orduan oraindik aurrekontu proposamenik ez zegoela gogoratu du. Udalak zorpetzeko gaitasuna duela esan du, baina "kontuz" ibili behar dela, %6,31 aurrezki garbia baitu udalak. Horrek "mugatu" egiten du zorpetzeko gaitasuna. 2019an aurrezki garbia 5,1 milioikoa izan zen, eta, aurtengoa, 1,4 milioikoa. "Kreditu aldaketekin jarduteak eragozpenak ekarri dizkigu: u d a l e t x e a r e n e g o e r a ekonomikoaren gaineko informazio zehatzik ez dugu izan orain gutxi arte; 5 milioiko defizita edo desoreka bat dago aurreko espedienteetako gastuak altxortegiko geldikinarekin finantzatu direlako".

EAJren aburuz, funtsezkoa da datorren urteko aurrekontu eta ordenantza fiskalak "lehenbailehen" lantzen hastea. "Bonifikazioak berrikusi ditzagun berriro, aurrezki garbia handitzeko bideak aztertu ditzagun eta zorpetzeko gaitasuna aztertu dezagun. Planifikazioa beharrezkoa da".

Alderdien balorazioak entzun ostean, PSE-EEko zinegotzi Lourdes Acevedok hartu du hitza, Udal Gobernuaren ikuspuntua azaltzeko. "Guk planifikatzen dugu, eta ziur gaude kreditu aldaketan jasotzen diren neurriak lasarte-oriatarren onerako izango direla". Acevedok gogoratu du Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik %20 diru gutxiago jasoko dutela, eta pandemiak udala behartu duela "urgentziazko neurriak" hartzera, unean uneko

beharrei erantzuteko. "400.000 euro bideratu ditugu familiak eta pertsonak laguntzera, beste 500.000 merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresentzat, eta 125.000 euro erosketa bonuak ateratzeko".

Beste gai batzuk

Gai-zerrendako lehen puntuan onartu dute Autobus Bidaiarien Hiri Garraio Publikoko Zerbitzuaren kontratua luzatzea, abuztua ere sartzeko. Hamabi aldeko bozka eta hiru abstentzio jaso ditu proposamenak, EAJrenak hain justu. Jeltzaleen bozeramaile Jon Antxordokik azaldu duenez, "beharrezkoa" da zerbitzu hori abuztuan ere eskaintzea. Ados daude proposamenarekin, baina "kontrako txostenak" egin direnez horri buruz, ez dute alde bozkatu.

David Mateos (PSE-EE): "Frogatuta dago abuztuan zerbitzua eman behar dela, 2018 eta 2019ko esperientziak onak izan dira. Udal Gobernuak behar sozialei erantzuten die, periferia erdigunera gerturatuz eta alderantziz".

A-35 Zabaleta Berri HIEko "a.3.1./6" eta "a.3.1./7" Lursailen Jabetza Osoa Esleitzeko Kontratua aldatzea ere onartu dute.

Udalak aurten egingo dituen inbertsioak

- **193.000 euro** Basaundi Bailara birgaitzeko.
- **170.000 euro** etorkizuneko obren azterlanak eta proiektuak idazteko.
- **90.000 euro** udalbatzar eta batzordeetan itzulpen sistema bat ezartzeko.
- **80.125 euro** hiri-altzarietarako: bankuak, paperontziak, eta abar.
- **56.100 euro** zenbait kirol-instalazio hobetzeko.
- **45.080 euro** Zataraingo landa-eremuan semaforosistema bat jartzeko.
- **42.207 euro** Zumaburuko eskolako atezainaren etxebizitza gaitzeko.
- **25.000 euro** ezpondetan belarra mozteko segurtasun-sistema bat jartzeko.
- **21.000 euro** kirol-ekipamendua erosteko.

Kreditu aldaketaren nondik norakoak

Agustin Valdivia alkateak kreditu aldaketaren nondik norakoen berri eman du ezohiko saioa bukatutakoan. Nabarmendu du "pozik" dagoela korporazioko alderdiek erakutsi duten jarrerarekin, eta Udal Gobernuak "ahal izan duen proposamenik onena" egin duela.

"Kreditu aldaketa honen bidez, posible izango dugu hainbat inbertsio egitea herrian aurten, eta familientzat eta herriko elkarteentzat diru laguntzak ematea", esan du Valdiviak. 2.797.522 euro bideratuko ditu udalak horretara. Alkateak azpimarratu du diru-sarrerak

nabarmen murriztu direla, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsa % 20 gutxitu baita, 2,7 milioi euro inguruan baloratua, eta eman gabeko hainbat zerbitzuri aplikatutako hobariak edo ostalaritzari terrazen tasa ez kobratzeagatik udalak "gerrikoa estutu" behar izan duela, udalaren gastu arrunta "nabarmen" murriztuz, urgentzia handienekoei aurre egin ahal izateko.

Aldaketa horiek eginda, 30.616.194 eurokoa izango da udal gastuaren aurrekontua. Horrela finantzatu da azken kreditu aldaketa hori:

Diruzaintzako soberakinetatik 622.120 euro; oraindik 1.226.932 geratzen dira altxortegian; Eusko Jaurlaritzaren ekarpena handitzetik, 718.956 euro; murriztu diren gastu arruntetako partidetatik, 1.456.436 euro.

Diru laguntzen atalari dagokionez, alkateak jakinarazi du 2.812.750 euro onetsi direla, %6,95 diru gehiago bideratuta. 182.696 euro gehigarri horietatik erdia baino zertxobait gehiago, %56,2, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara bideratuko ditu udalak. Valdiviak aurreratu du asmoa dela elkarteekin irailean

sinatzea hitzarmenak. "Gehienek diru gehiago jasoko dute".



Agustin Valdivia alkatea. TXINTXARRI



Bi eratako bonuak erosi ahal izango dituzte lasarteoriarrek: 20 eurokoak eta 10 eurokoak. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako jarduera ekonomikoa sustatuz

Herriko merkataria, ostalari eta zerbitzu pertsonalak laguntzeko asmoz, bonuen kanpaina abiatu du udalak. Parte hartu nahi duten establezimenduek irailaren 15a baino lehen egin beharko dute eskaera, dagozkien dokumentuak aurkeztearekin batera

Txintxarri

COVID-19ak eragindako alarma-egoeraren ondoren, Lasarte-Oriako Udalarentzat "beharrezkoa" da udalerrian jarduera ekonomikoa sustatuko duten ekimenak abian jarri eta bultzatzea. Bide horretan, beste zenbait ekimenen artean, merkataritzarako, ostalaritzarako eta zerbitzu pertsonaletarako bonuen kanpaina bat abiatuko dutela iragarri dute, eta jakitera eman dutenez, 125.000 euro bideratuko ditu egitasmo horretara.

Bonuak kanpainara atxikitzen diren establezimenduen artean banatuko dira eta bi eratako bonuak egongo dira: 20 eurokoak (10+10) merkataritzan eta zerbitzu pertsonaletan kontsumitzeko, eta 10 eurokoak (5+5) ostalaritzan kontsumitzeko.

Kanpainan parte hartu nahi duten establezimenduek irailaren 15a baino lehen egin beharko dute eskaera, eta zenbait dokumentu ere aurkeztu beharko dituzte, kanpainaren bat egite eskaerarekin batera. Dokumentu horiek telematikoki

aurkeztu ahalko dituzte udalaren webgunearan bitartez (www.lasarte-oria.eus) edo Mirentxuko COVID-19aren bulegoan bertan, baina azken aukera horretarako ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua hartzea 943 376 179 telefonora deituz.

Informazio gehiago nahi duten lasarte-oriatar guztiek, kanpainaren oinarriak eta dokumentazioa kontsultatzeko aukera daukate udalaren web orrialdean, www.lasarte-oria.eus atarian.

Hileta eta harrera zibilak ere egin daitezke Lasarte-Orian

Zeremonia zibilen araudia "behin betiko" onartu du udalak. Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean sartu behar dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ezkontza zibilak egin izan ditu orain arte, baina zeremonia zibilen araudia onartu ostean, herritarrek ospa ditzakete harrera eta hiletak ere. Udaleko Erregistro Orokorrean egin beharko dituzte eskaerak, aurrez aurre edo telematikoki, baliabide elektronikoak erabiliz. Alkatetzari zuzenduko zaizkio gero proposamen horiek. Ospatu nahi den zeremonia motaren eguna baino bi hilabete lehenago egin beharko dira tramite horiek gutxienez, hiletan kasuan izan ezik. "Ospakizun azkarra edo intimoa" egitea aukeratuz gero, berriz, eskaera bi egun lehenago egin beharko da.

Onartu den araudiak zehazten ditu zeremonia mota bakoitzaren definizioak, baldintzak, ospakizun-egunak, espazioak eta nork eska ditzakeen. "Egokitzat jo da herritarrei bestelako ospakizun zibilak egiteko aukera ematea bizitzaren funtsezko beste bi unetan, hala nola jaiotzan edo heriotzan", azpimarratu du udalak.

Ezkontza zibila ekitaldi publikoan zeremonia zibil bat egitea da, ezkongaiak eskatuta, beharrezko baimena epaitegian tramitatu eta lortu ostean. Alkateak edo hark delegatutako zinegotziak zuzenduko du. Hileta eta harreraren kasuan, berriz, alkateak berak, zinegotzi batek edo familiartekoei proposatutako edozein pertsonak.

Harrera zibila herriko haur jaioberri bati komunitatera egiten zaion ongi-etorri publiko bat da, balio sinbolikoa besterik ez duena. Hileta, lasarte-oriatarrari bere komunitateak egiten dion laguntzaren agerpen publikoa.

Egun, ordu eta espazioak

Ezkontza zibilak

- **Bista-aretoa:** astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.
- **Pleno aretoa:** astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara.
- **Mirentxu:** astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara.

Hileta zibilak

- **Mirentxu:** astelehenetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara astegunetan.
- **Hilerria:** astelehenetik larunbatera 09:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:30era astegunetan.

Harrera zibilak

- **Bista-aretoa:** astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara.
- **Mirentxu:** astelehenetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara.

aldika

produktu bereziak

- ahatekinak
- ehizak eta hegaztiak
- bakailao gezatua
- onddoak
- marinatuak
- olagarroa

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA • Tel.: 943377089 • aldika@aldika.com • www.aldika.com

NOAOA

BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

943 37 36 13

Orduetgia: **09:30-13:30**
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da
info@noaoa.eus



Desfile eta partaideen arteko afaririk ez da egongo aurten, eta parodiak gain meza eta dantza egingo dira. TXINTXARRI

Koronabirusari ihesi dabil Santa Ana ere

Aurtengo Santa Ana parodia kultur etxean egingo du Ttakun KEK, udalarekin elkarlanean. Desfilea eta afaria bertan behera geratu badira ere, urteroko Santa Anaren omenezko meza egingo dute, eta, ondoren, Erketzek aureskua dantzatuko du Santa Ana karkaban

Txintxarri

Santa Ana eta San Joakin ez dira Okendo plazara agertuko aurten. Horiek ere koronabirusari ihesi egiteko osasun neurriak hartzea erabaki dute, eta urteroko agerraldia Manuel Lekuona kultur etxean egingo dute aurten. COVID-19ak eragindako pandemiari aurre hartzeko ezarritako osasun neurriak bermatzeko helburuarekin, Ttakun KEK udalarekin elkarlanean antolatu ohi duen Santa Ana eguneko parodia tradizionala lekuz aldatuko da igande honetan, eta formatu berri eta berezi batez gozatu ahal izango dute lasarte-oriatarrek. Gaueko 22:00etan hasiko da emanaldia, baina ikus-entzuleak 21:30erako gerturatzeke gomendioa egin dute antolatzaileek.

Orain arteko parodiak aurrez aurrekoak izan badira ere, aurtengoan aktore gutxi batzuk arituko dira kultur etxeko areto nagusiko oholza gainean. Bertsolaria, bando-irakurlea, aurkezlea, bost pertsonaia eta

deabrua arituko dira zuzenean, eta gainerako parte hartzaileen esketxak paintaila bidez ikusiko dituzte herritarrek. Hain zuzen ere, aurten, hori da berezitasuna: zuzeneko emanaldia eta grabatutakoak tartekatuz osatuko dutela parodia.

Kultur etxean egingo denez, eta segurtasun neurriak bermatzeko, 188 ikus-entzulerentzako tokia zehaztu dute, eta zuzeneko emanaldira joan ahal izateko ezinbesekoa izan da gonbidapena eskuratzea. Horiek zozketa bidez banatu dituzte izena eman duten herritarren artean; atzo arratsaldean banatu zituzten. Gonbidapenik gabe geratu diren herritarrentzat ere proposatu

AURTENGO PARODIAN ZUZENKO ESKETXAK ETA AURREZ GRABATUTAKOAK UZTARTUKO DITUZTE

dute irtenbidea; streaming bidez jarraitu ahal izango dute herritarrek, euren etxeetatik. Horretarako <https://www.youtube.com/watch?v=0mEKqdKR2gE&feature=youtu.be> lotura jarri dute eskura.

Desfilerik eta afaririk ez aurten

Urteroko parodia aurreko desfile eta afaria bertan behera utzi dituzten aurten. Akusaturik ere ez da erreko, baina Lasarte-Oriako eta munduko trapu zaharrak aterako dira argitara aurtengo ekitaldian ere. Bizitzak eta egunerokoak hankaz gora jarri dituen koronabirusaz arituko dira aurtengo ekitaldian, baina herriko gai nahasiak ere ekarriko dituzte gogora; Landaberriko aldapa, esate baterako.

Santa Ana eguneko meza 11:00etan izango da Brigitarren komentuan. Hori amaituta, Erketz Dantza Taldeko kideek agurra dantzatuko dute Santa Ana karkaban.



Eraso sexistarik gabeko uda kanpainaren kartelak itsatsiko dituzte herrian. UDALA

Udala, Beldur Barik-en udako kanpainarekin bat

'Eraso sexistarik gabeko uda baten alde' kanpainaren kartelak itsatsiko ditu udalak herriko hainbat gunetan

Txintxarri

Eraso sexistarik gabeko uda baten alde kanpainaren kartelak, herrian zehar itsatsiko ditu udalak.

Beldur Barik-ek uda honetarako martxan jarri du Erasos sexistarik gabeko uda baten alde kanpaina. Horrekin bat egin du Lasarte-Oriako Udalak: jakinarazi du egitasmoaren kartelak itsatsiko dituela herrian zehar, "errespetuan, berdintasunean eta autonomian oinarritutako

jarrerak sustatzeko helburuarekin.

Udalak gogorarazi du "guztion ardura" dela eraso matxisten eta LGBTBifobikoen aurkako prebentzioa. "Herritarrena, eta erantzukizun politikoa edo teknikoa duten pertsona guztiena; bereziki, toki mailan dihardutenena, eremu hori herritarren bizitza garatzen den eguneroko espazioetatik gertu dagoelako".

Lasarte-Oriak talentu asko duenik ezin daiteke ukatu

Patricio Pub eta Casa Humada-Txintxardinek sari bana eskuratu dute *Talento Gastro* lehiaketaren III. edizioan

Txintxarri

Astelehen honetan ospatu dute Maria Cristina hotelean *Talento Gastro* sari hirugarren edizioa. Gastronomiaren belaunaldi berrien profesionaltasuna saritu dute, eta horien artean, Lasarte-Oriako bi establezimendu saritu dituzte: Patricio Pub eta Casa Humada-Txintxardin. Patricio Pubeko Yon Pavonek koktelero onenaren saria ekarri du herrira, eta Casa Humada-Txintxardineko Sergio Humada sukaldariak, berriz, sukaldari onenarena.

Ilusioa eta lanerako gogo

Bizitzen ari garen pandemia garai hauetan lanean jarraitzeko "ilusioa" azpimarratu du Pavonek,



Sergio Humada eta Yon Pavon. YON PAVON

eta bezeroak izan ditu gogoan: "Horiek esker gaude gaur hemen". Sergio Humadak, berriz, Gipuzkoako belaunaldi berrien lana jarri du balioan, eta horiei eskaini die saria.

Uztailaren 27tik 30era, Udako Txokoak berriro

Ttakun Kultur Elkarateak behin-behinean etenda izan du egitasmoa joan den asteko larunbatetik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren gomendioei jarraituz. Egoera berriz baloratu, eta azken asteko programazioari berrekitea erabaki du

Txintxarri

Ttakun KEren Udako Txokoei astelehenean berrekingo diete elkarateak berak, begiraleek eta haurrek. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak pasa den asteko larunbatean jakinarazitako gomendioei jarraiki, zazpi egunez zerbitzu hori ez ematea erabaki zuten, "pena handiz", baina "prebentzioz eta arduraz" jokatuz. "Bertan behera uztea da zentzuzkoena", adierazi zuten uztailaren 18an. Orduan esan zuten beste gauza bat izan zen uztailaren 23an eseriko zirela berriro, egoera zein zen tentuz aztertu eta erabaki bat hartzeko: azken asteko ekintzei berrekin, edo aurtengo programa amaitu.

Bada, hori egin dute, eta ongi aztertu ostean, erabaki dute uztailaren 27tik 30era Udako Txokoak itzuli egingo direla, eta aurreikusitako ekintza eta jarduerak egingo dituztela astelehenetik ostegunera, lehen egunetik egin bezala, osasun eta segurtasun neurri guztiak betez. Hortaz, haurrak eta begiraleak Okendo plazan elkartuko dira uztailaren 27an, astelehenez.

Zuzendaritzak bi arrazoigatik erabaki du Udako Txokoak berriro martxan jartzea. "Azken egunetan jaitsi egin dira COVID-19agatik kutsatze kasuak



Ttakun KEren Udako Txokoak uztailaren 1ean hasi ziren. TXINTXARRI

Gipuzkoan, eta Buruntzaldean ez da egon agerraldirik". Horrez gain, txokoak egiten ari diren hainbat elkarterekin kontsultatu dute egoera, eta aukera ikusi dute egitasmoari berriz ekiteko. Donostiako Udalak, adibidez, asteon jarri ditu martxan berriro *Oporretan Euskaraz* udalekuak, Osasun Sailak adierazitakotik bi egunera.

Neurri guztiak hartuz

Ttakun KEren Udako Txokoak uztailaren 1ean hasi ziren, aurrez hartu eta landutako osasun eta

segurtasun neurri guztiak zainduz eta protokolo zehatz bat jarraituz. Horrela jardun dute egunero-egunero, pasa den asteko larunbatean behin-behineko erabaki hori hartu behar izan eta txokoak eten zituzten arte, astebetetz. Datorren asteko astelehenean ekingo diete jardueri berriro.

Bien bitartean, Ttakun KEk Udako Txokoen poltsatxoak jarri ditu salgai Jalgi Kafe Antzokian, 3 euroan. Material hori eskuratu nahi dutenek bertatik pasa beharko dute erostera.

Uztailaren 30a, zenbait tasa ordaintzeko azken eguna

Ordura arte ordain daitezke borondatez zaborraren eta ur-estolderiaren tasen 1. zatia, 2020. urte hasierakoa

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak gogorarazi du datorren asteko ostegunera arte ordain ditzaketela herritarrek zaborraren eta ur-estolderiaren tasak, 2020ko lehen lauhilekokoak. Ordura arte borondatez ordain

ditzakete zerga horiek. Erreziboak helbideratuta dauzkatenek hildaren 30ean kargatuko zaizkie, aurrez zehaztutako kontu korranteetan. Helbideratu gabe dauzkatenek, berriz, banku zein aurrezki kutxetan pagatu dezakete, eta

www.lasarte-oria.eus web orrialdean ere bai, honako urrats hauek eginda: *administrazioa-tramiteak online-nire ordaintza online*. Edozein zalantza edo argibide behar izanez gero, 943 376 187 telefonora deitu beharko dute herritarrek, Zergabilketa bulegoarekin hitz egiteko.

Erreziboak ez badira hildaren 30a baino lehen ordaintzen, "premiamentuzko prozeduraren bitartez" exijituko ditu udalak, "erreziboari dagokion errekaruarekin".



TXINTXARRI

Sentipen ugari piztuz

Ikonografiak ikuskizuna ekarri du Andatza plazara Kresala Dantza Taldeak. Mundu tradizionala ikuspegi berrizatu batetik. Koreografiak, errezitatutako olerki edo pasarte batzuekin tartekatuta. Horrela josi du Kresalak ikuskizuna. Jantzi beltzak soinean eta nahitaezko musukoa aurpegian, hamasei dantzariak sentipen ugari piztu dituzte Andatza plazan elkartutako ikusleengan.



TXINTXARRI

Barrez eta txaloka

Gag Street Boys bikote bihurriak emanaldia eskaini du Andatza plazan. Iñigo Salinero eta David Gutierrez aktoreek arratsalde ederra pasarazi diete ikus-entzuleei euren ateraldiekin Andatza plazan. Udalak emanaldi horiek tokiz aldatzea erabaki zuenetik, Gag Street Boys bikotearena izan da aurreneko kale antzerkia.

Pedalkadaz pedalkada

Ostegunean hasi da Sarek antolatutako III. Bizikleta Itzulia. Lehen etapa 50 kilometrokoa izan da, Lekunberritik Hernanira.

Eskualdeko hainbat herritarrek bat egin dute egitasmoarekin, baita lasarte-oriatarrek ere. Okendo plazatik abiatu dira eta Andoainen bat egin dute beste txirindulariekin. Bigarren etapa gaur egingo dute, Urduñatik Durangora.



LASARTE-ORIAKO SARE HERRITARRA

Nerea Eizagirre

Egun hauetan, dagoeneko Tokion egon beharko luke Maialen Chourraut Yurramendi (Lasarte-Oria, 1983) palistak. Uztailaren 26an sailkapen txanda izango zuen eta hori igaroz gero, bi egun geroago final-erdiak eta finala izango ziren. COVID-19aren eraginez, ordea, Joko Olimpikoak urte betez atzeratu dira. Lau urte hauetako ziklo olimpikoa ez da erraza izan herritarrentzat eta atzerapenak hitzordu garrantzitsua hobeto prestatzeko aukera emango dio. Hala ere, bidea ez da ziurra. Erabaki ugari ere hartu ditu azken urte honetan etorkizunari buruz eta horietako bat, etxera bueltatzea da. Duela hamabost urte Lasarte-Oriatik La Seu D'Urgellera (Herrialde Katalanak), joan behar izan zuen bere ibilbidean aurrera egin eta bere ametsa gauzatu ahal izateko. Orain, Donostian biziko da, "familiarik gertu". Olinpiar Jokoetako dominadun bikoitzarekin -Londres 2012, brontzea eta Rio 2016, urrea- solasean egon gara horrez guztiaz eta beste gai batzuez.

Oraintxe Tokion egon beharko zinateke lehiaketan, baina COVID-19a delaeta, 2021ean izango dira jokoak. Nola hartu zenuen erabakia? Orain ez dut pentsatzen Tokion egon behar nuenik, prozesu hori martxoan gainditu nuen.

Esan zuten eguna baino lehen, gu etxean ginen esanaz, "nola egingo dituzte gu hemen etxean bagaude eta beste herrialdeetan, entrenatu gabe badaude? Nola bidaiatuko dugu? Nola...?" Eta hasiera batean baiezkoa zioen Komite Olimpikoak eta guk ez genuen ikusten. Baina ezetza esan zutenean, "baina nola ezetzi!" izan zen. "Lau urte entrenatzen egon eta gero, azkeneko bizpahiru hilabeteak geratzen dira..."

Gainera, larrialdi egoera ezarri zenean, denboraldi berriari hasiera eman berri zineten, ezta?

Bai, horrela da. Larrialdi egoera ezarri baino aste bete lehenago egin nuen lehen lehiaketa. Eta motorrak berotzen hasi eta azken txanpa geratzen zen.

Orduan, urte bete atzeratzen zirela eta "agur jokoak" onartzea... Egun horiek izan ziren pixkat arraroak.

"Orain da" sentimendua, udako planak eta datorren urterako... Guztia hankaz gora jarri zen.

Hala ere, larrialdi egoerari alde ona aterako diozu.

"Gauza txikien garrantzia eta horiekin gozatzeko ikasi dut"

MAIALEN CHOURRAUT YURRAMENDI PIRAGUISTA

Rioko urrezko dominaduna etxera itzuli da. Egoera berriei moldatzeko abilezia duela erakutsi du uretan; lau urte hauetan, uretatik kanpo ere hainbat gertaerari aurre egin behar izan die



Maialen Chourraut Yurramendi, Oria ibaia atzean duela. TXINTXARRI

Orain hori esaten dut, baina nire haserrearen izan ditut etxean ginenean.

Nik ez ditut inoiz pasa hiru hilabete etxean. Ez naiz inoiz hainbeste denbora egon. Gehienez bi aste edo hiru egoten gara. Urteak dira hainbeste denbora etxean pasatzen ez nuela.

Eta bat-batean hiru hilabetez apenas ateratu gabe, gainera ohituta goiz eta arratsaldean kolean egoten, piraguan ibiltzen...

Niri ez zait erraza egin. Baina behin aterata eta entrenatzen hasita iruditzen zait hori oso urrunean geratu dela. Ez zela hain gogorra izan, baino momentu askotan gauza onak aurkitzea ez da erraza. Egindako gauza txikiei garrantzia eman eta horrekin gozatzeko ikasi dut.

Gainera, larrialdi egoeran, etxean denbora asko zegoen pentsatzeko, helburu berriak finkatzeko, reset egin, guztia

formateatu eta hasieratik guztia berriro egituratzeko.

Baina arazo batekin aurkitzen ginen lan egiterako orduan: egutegiarekin. Zertarako, noizko entrenatuko dugu. Zer planifikazio egin. Urteko egutegiko garai bakoitzak bere entrenamendu zehatza behar du helburura %100era iristeko.

Baina gero hasten zara pentsatzen: "Zer egongo naiz lastimatzen, hau ezin dut egin pentsatzen". Hoberena da alderdi onak hartu, momentuan zehaztu zer egin nahi dugun eta horri eutsi diogu.

Lehiaketan etena ongi etorri zaizu orduan.

Niretzako ziklo olimpikoa oso gogorra izan zen, lau urte oso gogor bai lesioak, bai pertsonalki ere, aitaren galera...

Hautaketa probak, munduko probak... Iruditzen zitzaidan ez zidala denborarik ematen helburua ongi prestatzeko, lana era konstante batean egiteko.

Arazo asko batzen zitzaizkidan eta dena ondo zihola zirudienean, hurrengo oztoppa suertatzen zen.

Joko osteko urte osoa bertigoekin egon nintzen eta oso gogorra izan zen. Eztatzen nintzen bakoitzean, burua atzera botatzen nuen bakoitzean... Mundua, dena mugitzen zitzaidan. Gimnasioan etzaten nintzen bakoitzean, piraguan saihestu behar nuen ate bakoitzean,

ezegonkortasun bat nuen bakoitzean eta entrenamendu guztiak zuri-zuri eginda bukatzea, sekulako zorabioarekin. Etxera joan, gauzak prestatu eta arratsaldean berriro.

Eguzkiarekin ere oso gaizki pasatzen nuen eta lehiaketa egunetan, estresarekin, handitu egiten zitzaidan. Gauean amesten nuen eta "berriro ere", esnatu eta bertigoak...

Bertigoak joan eta astebetara, ez ziren egun gehiago izan, saihestean mina hasi zitzaidan.

Lau hilabete egon nintzen minarekin. Kristoren mina nuen eta arnasbideko infekzioak ere izan nituen. Urgentzietara behin baino gehiagotan igo nintzen.

Lau hilabetetara pneumonia edo zer neukan ikusteko plaka bat egin eta saihesten-hezur bat soldatzen ari zela ikusi zuten.

Saihetsa puskatua zegoen eta hilabete horietan ia egunero piraguan igo, ibiltzen saiatu eta "ezin naiz ibili", piragua utzi, berriro etxera. Horrela egun, bat, beste bat, aste bat, beste aste bat... Gainera, gaixo jartzen nintzen ezin nuen arnasa ongi hartu eta sekulako mina nuen.

Martxoan hautaketa probak genituen, ezin apenas entrenatu, minarekin. Zeren eta ezin entrenatu baino, mina izan baitzen txarrena. Eta "benga, beste denboraldi bat prestatzen". Ezin duzula, korrika eta presaka.

Hurrengo urtean, guztia ongi zihola, aitarena gertatu zen. Aitarena kolpe gogorra izan zen eta, azkenean, minak eta beste gauzak baino okerragoa.

Aurten, COVIDa. Baina COVIDarena aukera bezala hartzen dut. Ea urte eta erdi on bat ekartzen didan.

Ez da ziklo olimpiko erraza izan, batere. Gogorra izan da. Baina oraina bizi behar dugu eta horri eutsi.

Materialarekin ere arazoak izan zenituen, ezta?

Bai, piragua aldaketa izan nuen eta gustuko piragua aurkitzea asko kosta zitzaidan.

Aurreko urtean, 2019ko azaroan, hainbat piraguaren ostean, piragua bat probatu nuen, pixka bat handia zen, baina gustuko nuen.

Eta larrialdi egoera ezarri baino bost egun lehenago, neurri perfektuko piragua iritsi zitzaidan. Probatu, eta "hau izango da piragua olimpikoa", sentitu nuen.

"ZIKLO OLINPIKOA OSO GOGORRA IZAN DA NIRETZAT, BAI FISIKOKI, BAI PERTSONALKI ERE"

Azkenean, ongi gordeta geratu behar izan zuen eta Joko Olinpikoak atzeratu zituztenez, pentsatu genuen: "Beno, urtebete gehiago ohitzeko".

Larrialdi egoeran guztia berriro egitaratu duzuela aipatu duzu. Zein aldaketa egin dituzue?

Teknikoki ausartzen ez ginen aldaketetan lan egin eta hori guztia neureganatzeko aukera ikusi genuen.

Eta horretan ari gara. Teknikoki aldaketak egin, keinu berria automatizatzen eta aukera on bat bezala ikusi dut.

Bideo analisirako ere programa bat aldatu dugu eta horrekin gauzak ezberdin eta hobeto ikusten ditugu, eta jokoak ez balituzte urtebete atzeratu, ez ginateke ausartuko hori aldatzen eta orain ari garen gauzak bilatzen.

Batzuek diote beterranean sartzean, ba aukera baino kontra egitea dela, baina nik nahiago dut gauzak positiboki hartu eta abagane bat dela pentsatzea. Gainera, horrela sentitzen det.

Eta hori guztia aurrera eramateko, larrialdi egoeran nola moldatu zarete entrenatzeko?

Hasieran hamabost egunetarako gauza izango zela pentsatzen genuen eta hamabost egun piragua ukitu gabe irudiz zitzaigun, "buah!! Zein astakeria!!".

Orduan, entrenatzen dugun Parc del Segreko gimnasiotik materiala hartzen utzi ziguten eta guztion artean banatu genuen materiala. Etxeko garajeetan toki pixka bat egin genuen kotxea kalean utzita eta gimnasio antzeko zerbait moldatu genuen.

Lehen astea ez nuen ongi eramanean. Egunean goiz eta arratsalde piraguan egotera ohituta egonda, uretan egotea, lan espezifiko hori galtzea... Gimnasia ere joaten nintzen, zeren eta ia egunero joaten bainaiz, baina bat-batean lehorreko lana egitea gogorra izan zen.

Lehenengo asteko haserre hori segituan pasa zen. Azkenean dinamika hartzen duzu eta gustuko ez duzuna aurrera

ateratzeak betetzen zaitu eta, egia esanda, garajetik etxera igotzean gustura igotzen nintzen. **Bakarka egin duzu lan, orduan.**

Ez. Nik etxean egindako lanaz gain, taldean modu kolektiboan egiteko saioak jartzen zituzten. Guztia birtualki.

Coronagames deitzen zioten eta lehia txikia zen. Fisikoki oso gogorra. Baina lehia txiki hori dibertigarria zen, batzuetan binakako taldeak egiten ziren eta asten bitan *Coronagames* horiek egiten genituen eta astean beste pare bat egunetan luzaketak. Hitzaldi batzuk ere egon ziren...

Azkenean larrialdi egoera igaro zen eta probetxuzko gauzak atera genituen. Lana beste era batera egin genuen. Eta, esan bezala, gauzak modu positiboan begiratu behar dira, gauza bat gustuko ez duzunean eta aurrera ateratzen duzunean, ba moralki hobeto zaude.

Eta etxetik ateratzeko baimena eman zizuetenean, nola joan zen?

Kirola egiteko baimena eman zuten lehen egunetan ezin ginen kanalean ibili, La Seutik ere ezin ginen atera, kotxea ere ezin zen hartu eta etxe ondoan ibaia jaisten zen eta putzutxo bat bazegoen. Ez zen asko, 100 metro, eta piragua sorbaldan hartuta putzutxo horretara joan ginen lehenengo paladak ematera.

Larunbat eta igande bat izan zen hori eta, astelehenean, baimena genuen goi mailako kirolari izateagatik, kotxea hartu eta eremutik ibiltzeko. La Seutik gertu badago Arfa izeneko herri txiki bat eta hor ibai bat dago, pixka bat moldatua, eslaloma egiteko. Gainera, ibaia urez ondo zegoen. Bertan bi aste egin genituen, uste dut, La Seuko kanala ireki arte.

Beldur handia genuen lesioekin. Kontu handiarekin ibili behar izan genuen. Gorputzaren mugimendu espezifikoak ongi amaitu, eta hasieran asko kostatu zen, baina gutxinaka martxa hartzen joan ginen.

Pixkanakako itzulera hori ongi joan zen. Segituan lehiatu behar bazara edo kanalak ur intentsitate handia duela... Horrela gorputzari ohitzeko denbora eman genion eta keinura ohitzeko.

Hasieran, gezurra dirudi, baina piragua hartu eta lehen minutuak desastre bat izan ziren. "Kanka!", ematen genion palarekin piraguari.



Maialen Chourraut, La Seu d'Urgellen 2019ko irailean jokatu zen Munduko txapeketan lehiatzen. RFEFES

Larrialdi egoeran ergonometroan lanean egon ginen. Soka batekin, palari tira egiten dio, eta keinua ezberdina da. Guztioi gertatu zitzaigun. Lehenengo paladak uretara sartu beharrean, piraguaren aurka izan ziren.

La Seuko kanala ireki zuten eta goizetan ordu eta erdiz ura ematen ziguten, ur dezente egon da eta asko gozatu dugu. Orokorrean pila bat gozatu dugu. Eguraldi ona, negua atzean utzita...

Gainera, lantzen ari garen gauzak kostatu dira, aldaketak egitea kosta egiten da eta orain pixkanaka-pixkanaka emaitzak ikusten dira. Oraindik asko falta da, baina ondo goaz.

Segurtasun neurriak-eta mantentzeko ere jarduna moldatu behar izango zenuten, noski.

Gure kirola individuala da. Tarte mantendu dezakegu, ez gaude elkarrekin eta ez daukagu kontaktu fisikorik. Egia esan, kirol aproposa daukagu oraingo egoerari aurre egiteko.

Parc del Segre duela bi aste arte ez zuten aldagela ireki, orain arte itxita egon dira. Biltokia ere itxita egon da, beraz, piraguak kalean horretarako prestatu zituzten leku batzuetan gorde zitezkeen. Baina hor eguzkia ematen zien eta niri ez zitzaidan gustatzen. Beraz, egunero etxetik eramanean eta ekartzen nuen.

Etxetik piraguistaz jantzita joaten ginen.

Entrenatzaileak musukoarekin joan behar ziren eta ez zen erraza.

Orain denok egon behar dugu. Eguzkipean, gainera, bi orduz, eguerdiko hiruretan edo eguerdiko ordu batean hor musukoarekin.

Baina egin behar da eta egiten da ahalik eta modu onenean.

Eta, batez ere, aipatu bezala, giro ona izan dugu. Pozik ginen uretan egon ahal izateagatik. Entrenatzeko giroa ona denean atsegina izaten da. Hori oso polita da. Gainera, hainbeste denbora etxean egon eta gero, uretan ezin ibili. Giroa oso polita izan da.

Guk zortea daukagu, nolabait gustatzen zaiguna egiten dugu; erraztasunak dauzkagu gure lana egiteko.

Ez dugu lehiatzen eta hori da gure lana, baina entrenatzeko erraztasunak ditugu eta badakigu jokoak hurrengo urtean badira eta egiten badira ahalik eta modu hobereanean egingo dugula.

Hau guztiaz gain, itxialdian 'Maialen Chourraut: Beldurretan arraunean' dokumentala estreinatzen. Bertan zure ibilbidearen laburpen bat ikusten da eta Riotik 2020ko martxora arteko zure jardunaren jarraipena ikusi daiteke. Nolako izan zen esperientzia?

Īnigo Asensioak erraz jarri zigun dena. Hau egitea onartu genuen Īnigo zelako zuzendari eta hark dena eramango zuelako.

"TEKNIKOKI AUSARTZEN EZ GINEN ALDAKETAK EGITEKO BALIATU DUGU JARDUNAREN ETENA"

Īnigo Basquetearekin egon zen lanean, 2011tik uste dut. Eta oso jatorra eta zintzoa da, beno, apasionatu bat da. Egiten duenaren apasionatu bat da.

Beti izan dugu harreman ona eta proposatu zigunean hor ibili ginen ezbaian. Niri ere ez zait asko gustatzen jende aurrean jarri eta gauzak egitea, baina... Īnigok asko errespetatu zuen nire izateko modua, nire mugitzeko modua eta egin zuen lana eta atera duena.

Kristoren dokumentala egin du Īnigok. Nik esaten dut pertsona pribilegiatu bat naizela. Begira zein opari egin didan Īnigok, betirako.

Batez ere, istorioa nola lotzen duen. Hastapenak zein ondo ikusten diren. Luis Murgiari egiten dion elkarrizketa, niretzat Luisi egiten dion omenaldi bat da, Luisen figura gure klubean, Atletico San Sebastianen, oso maitatua da. Eta nire aita eta familia daude.

Eta ni, nire beldurrak. Askotan ez dakit kanpotik zer ikusiko den, baina nik zalantza egiten dudana pertsona naiz.

Helburu handiak prestatzea gustuko dut, baina sekulako borroka internoak izaten ditut. Bideari eusteko, erortzen naizenean altxatzeko eta erortzeko beldur hori...

Dokumentalaren hasieran ikusten da, Riorako hegazkina hartu baino lehenago zalantza izan zenuela.

Bai, horrela izan zen gainera. Etxetik atera eta traste guztiak kargatu, Ane txikia, Raquelen

bila gindoazen Aneren zaintzailearen bila eta hori gertatu zen.

Tokioko Joko Olinpikoetarako prestatzen ari zara, baina oraindik Espainiako Federazioak ez du baieztatu txartela lortu zenuten palistak joango zaretenik.

Oraindik ez dakigu zer gertatuko den, ez dakigu hautaketa probak egin beharko ditugun...

Plaza olinpikoaren probak 2019an izan genituen eta tentsio handiko urtea izan zen helburua aurrera eramateko. Azkenean, mundiala genuen etxean La Seun, baina garrantzia zuena plaza olinpikoa zen. Nazioarteko federazioak herrialdeentzako plaza olinpikoak banatzen zituen eta horretaz gain, guk uda osoan zehar gure hautaketa proba propioak genituen. Espainiako Federazioak ezarritako probak ziren eta aukera zegoen irailerako Munduko Txapelketan plaza horri izena eta abizena jartzekoa. Eta nire helburua hori zen.

Nazioarteko lehiaketa guztietan saiatu nintzen ahal nuen puntuaketa onena lortzen plaza hori ziurtatzeko. Garrantzitsua zen finaletan egotea; finalak ez ziren oso onak izan, baina irailerako lortu nuen izen-abizenak jartzea.

Orain zer gertatzen da, Jokoak 2021ean dira eta ia bi urte lehenago jarri genion izena plazari, bagaude hiru kirolari izena eta abizena jarrita baina bi urte lehenago lortutako plaza batean. Logikoa den bezala, edo behintzat nire ikuspuntua da, zeren eta bakoitzak bere iritzia dauka, Tokiora ez da joan behar orain dela bi urte hoberena zenak, baizik eta momentuan onena denak joan behar du.

Eta gauza horiek guztiak uretan ikusi behar dira eta uretako lehiatik ateratzen da emaitza. Ea zer gertatzen den, zer esaten duten.

Eta egiten dutena ere onartu beharko da, joko horrela delako. Niri ez zait faena bat iruditzen.

Ez dut uste orain kristoren astakeria egingo dutenik eta lehiaketa bakarrean guztia jokoan egongo denik. Pentsatzen dut erregulartasuna eskatuko dela. Baina ez dakit, ez dakit zer eskatuko den. Agian plaza gurea dela esaten dute, baina ezin da jakin.

Ez dakigu, baina konfiantza daukat uretan jokatu behar



Chourrautek urrezko domina eskuratu zuen, Rioko Joko Olinpikoetan. A. GURIDI

badugu era justu batean izango dela.

Eta gainera, hori ona da. Ez dut jokoetara joan nahi pentsatzen beste neska bat ni baino azkarrago doala. Horrekin ez naiz ziur iritsiko jokoetara. Horregatik, joan behar da onena dena.

Hala ere, prest egoteko ere ez duzue erraz izango. Aipatu duzun bezala, egutegi faltan egon zarete eta lehiaketak beharko dituzue arerioen indarrak neurtzeko.

Nazioarteko Federazioak ezarri du behin-behineko egutegia. Gu zain geunden, zeren eta hasieran, ekainaren ez dakit zein datara arte ez zela txapelketarik izango esan baitzuen. Gero atzeratzen joan zen.

Azkenekoz esan dutenez, Munduko Kopako bi proba izango dira, bat urrian Tachenan, Eslovenian, eta azaro hasieran Pauen, Frantzia. Gure ideia Pauera joatea da, ez Tachenera.

Munduko Kopak ez lirateke ofizialak izango eta ez lirateke munduko sailkapenerako baliagarri izango.

Gainera, irail erdialdean, Europako Txapelketa jokatu da Pragan. Ez dakigu joan edo ez, zeren eta oraindik herrialde batzuetara oraindik ezin da bidaiatu. Ikusiko dugu.

Orain atera duten egutegi honen arabera, Espainiako Federazioak ere argitaratu du berea. Zain zegoen, lehiaketetara joateko taldea osatu behar baita.

Abuztuko azken aurreko asteburuan Espainiako

Txapelketa dugu eta Espainiako kopako proba bat, La Seun, iraileko lehenengo asteburuan, taldea osatzeko.

Baina, ikusi dugunez, gauzak egun batetik bestera aldatzen doaz, astetik atera gehiago eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

Gainera, egiten ari garen prestakuntza ez da lehiaketa zehatz batetarako, ez gara ari lan espezifiko bat egiten orain lehiatzeko. Tokiora begira ari gara dena egiten.

Ikusiko da, agian moldatu behar dugu. Baina egia da egutegi bat antolatzea oso zaila dela ezer ez delako ziurra. Esate baterako, Pragara entrenatzera joan nahiko genuke, baina ez dakigu zer gertatuko den.

Bidaiak aipatu dituzu, nola moldatzen zarete?

Buruhauste handiak izaten ari gara. Horrela egingo dugula, beste era batera egingo dugula...

Orain Donostian bizi gara, La Seura asko joaten saiatuko gara, eta Pauera.

Pragara ere abuztu hasieran joan nahi dugu, posible bada, eta Europako Txapelketako data mantentzen bada. Baina oraindik ez dugu ezer ixten.

Bidaiatzeak ere orain atzeraka ematen dit. Bidaiatu eta

"TOKIORAKO ILUSIOA ETXERA DOMINA BATEKIN ITZULTZEA DA, BAINA JAKINDA OSO ZAILA DELA"

konfinatua geratzea, edo hegazkinean norbaitek positibo eman duelako... Probabilitate asko daude horrelako arazotxoren batean sartzeko. Beraz, ikusiko dugu. Egutetik egunera joango gara aztertzen.

Tokiorako bidean nortzuk izango dira zure arerioak?

Goiz da, baina ziklo olinpiko honetan Jessica Fox eta Ricarda Funk izan dira hoberenak dudarik gabe. Gero beste multzo bat dago eta ni ere bertan naiz oso indartsu doana, baina haiek pauso bat aurrerago joan dira.

Bai batak eta bai besteak Rion zeukaten aukera.

Fox zilarra izan zen Londresen eta momentu honetan emaitza historikoak ari da lortzen. Bere gurasoak ere munduko piraguista hoberenatarikoak izan ziren bere garaian eta Riora irabaztera zihoan. Brontzezko domina lortu zuen eta min horrekin bi pauso aurrera egin zituen eta kriston gogoarekin egon da entrenatzen eta lehiatzen. Eta oso piraguista ona da.

Aldi berean, Ricarda Funk alemaniarra faboritua zen. Rioko olinpiar-aurrean denak baino azkarrago zihoan.

Baina bere herrialdeko selekzioko probetan laugarren geratu zen. Finalaurreko guztiak irabazi zituen, baina finalak zituzten kontuan eta taldeak eta Joko Olinpikoetatik kanpo geratu zen. Eta berak ere arantzatxo hori dauka.

Ez da Joko Olinpiko batzuetan inoiz egon. Kriston gogo du jokoetan egoteko eta bere papera egiteko.

Ziklo olinpikoan kriston gosearekin egon da. Oso bizkor, nabegazio oso onarekin.

Bere entrenatzeko kidea 2018ko munduko K1 txapelduna da eta entrenamenduak ikusten badituzu, hura baino azkarrago doa eta bere kidea ez da edozein.

Fox eta Funk, beraz, oso indartsu egon dira eta beti eurei harrapatzeko gogoekin geratu naiz. Baina orain ez garenez lehiatu, ez dakigu zein egoeratan dauden.

Australian egon zen azken lehiaketa otsailean eta Fox eta Funk indartsu jarraitzen zutela ikusi ahal izan genuen. Baina uste dut beraiei ere gogorra egin zaiela jokoak urte bete atzeratzea.

Eurek urte bete gehiago dute hobeto prestatzeko. Baina guk ere bai. Eta gure nahia urte

horretan ahalik eta gehien eurei gerturatzea da.

Tokioko helburua domina lortzea da?

Joaten baldin bagara, helburua ahalik eta gauzarik politena egitea da. Eta jaitsiera polit batekin, dominetan egoteko aukera ere izango genuke.

Ilusioa etxera domina batekin itzultzea da. Baina jakinda oso zaila dela. Baina oso zaila da guztiontzat, hiruk bakarrik lortuko baitute domina Tokion. Jokoak egiten badira...

Eta Tokioren ostean, piraguismoan jarraituko duzu, ezta?

2019ko neguan erabaki nuen zer egin jokoan ostean. Ni pentsatzen hasi nintzen, "egunen batean lana edo zerbait egin beharko dut". Kanpotik, gainera, badirudi adina ganean dagoela eta atzetik datozen gazte asko daudela...

Baina entrenamendu asko elkarbanatu nituen La Seun neska batzuekin eta bertan ikusi nuen oraindik ematen dudala. Nik eurei eta eurek niri ematen zidaten. Beraz, zergatik utzi hainbeste gustuko dudana gauza bat, kanpotik esaten didatelako.

Eta zergatik itxaron. Nik ez nuen itxaron nahi Tokiora nire etorkizuna erabakitzeke. Emaitzaren arabera?!

Nik hau gustuko dut. E n t r e n a m e n d u a k partekatzearekin neskek asebetetzen zirela, ikasten zutela ikusi nuen eta zertarako utzi, oraindik ematen badut. Ez dut utzi behar.

Eta erabaki horrek ere eman zidan askatasuna, jarraitzeko, Tokiori presioa kentzeko.

Azkenean niri hau gustatzen zait eta orain Joko Olinpikoak atzeratu dituztela, ongi datorkit. Uztea edo ez uztea, nik badakit gustuko dudala eta gainera, oraindik balio dudala. Bai besteek ikasteko, baita guztien artean ikasteko eta guztion artean hobeak egiteko ere.

Gero ikusiko da, etorkizuna ez dut argi ikusten, baina badakit buruari gustatzen zaion bitartean eta besteei emateko daukadan bitartean jarraitzeko gogoia dudala.

Gainera, Zubieta aldean, presa elektrikoaren inguruan, kanal bat egiteko proiektua dago. Nahiko aurreratua dago kontua, baina orain gertatu denarekin ez dakigu noiz gauzatu ahalko den. Eta nire kirolari bizitza han bukatzea gustatuko litzaidake.

Ttakun

Kultur Elkartea

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

54€ urtean

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk

54€
urtean

ordaindu

guk

Euskara eta
kultura
sustatu
dugu

Errenta
aitorpenean

%20ko

kenkaria
izango duzu

Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian (Geltoki kalea, 4)

On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____


Helbidea: _____ Herria: _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkartek urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Bidali postaz edo utzi bulegoan:

Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:

www.txintxarri.eus/bazkidetu



Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideez irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonari eskainiko betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daitezke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideztak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Partida erabakigarria jokatzeko irrikaz

Heldu da ordua. Añorga KKEk Reto Iberdrola ligara igotzeko kanporaketa jokatu du larunbat honetan Madrilén, uztailak 25, UD Aldaia CF valentziarren aurka. Añorgatarren entrenatzaile Javi Solchagarekin hitz egin du TXINTXARRI-k. "Gogo ikaragarriak ditugu"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ordu eta erdi, 90 minutu, eta helburu bat: 2020-2021 denboraldian Reto Iberdrola ligan jokatzeko. Lau txartel jokoan, eta zortzi talde. Horietako bat da Añorga KKE gipuzkoarra. Denboraldi bikaina egin du 1. Nazional mailan, eta bere multzoko txapeldun geratu, 44 punturekin. COVID-19aren pandemia tarteko, ezin izan dituzte liga amaitzeko geratzen ziren zazpi partidak jokatu, eta 19. jardunaldira arteko puntu eta emaitzak aintzat hartu dituzte. Ligaren bi heren jokatu, beraz, Añorga izan da txapeldun, eta Reto Iberdrolara igotzeko kanporaketa jokatu du.

Lasarte-oriatar ugarik jarri dute hondar aletxo aurtengo denboraldian. Izaskun San Aniceto eta Ainara del Olmo jokalariez gain, entrenatzaile taldeko kide gehienak ere herrikoak dira: Javi Solchaga, Julen Ormazabal, Asier Pavon eta Jon Presa. Jon Saldias donostiarrak osatzen du bostekoa.

Ziurgabetasunez betetako aste eta hilabeteak bizitu dituzte Añorgako entrenatzaile eta jokalariek ere, baina maiatzean hasi ziren berri onak jasotzen. Lehenik eta behin, eurak zirela 1. Nazional mailako 2. multzoko txapeldunak. Aste batzuk beranduago, maiatz bukaeran,



Añorga KKE, larunbat honetako partida jokatzeko irrikaz. AÑORGA KKE FUTBOLA

jakin zuten Konpetizio Epaileak onetsi egin zuela Reto Iberdrola ligara igotzeko kanporaketak jokatzeko. Uztailaren 2an egin zuten zozketa, eta orduan jakin zuten UD Aldaia CD taldearekin neurtuko zituztela indarrak Las Rozasen, Madrilén.

Partida jokatzeko irrikaz

Martxo eta apirilean etxean egin zuten kirola Añorgako jokalariek, ahal zuten moduan. Konfinamendua arintzen hastearrekin batera hasi ziren errutinara bueltatzen apurka-apurka, eta ekain amaieratik daramate taldean entrenatzen. Egokitze prozesua ez da erraza

izan, Javi Solchaga entrenatzaileak aipatzen duenez: "Pare bat astez, hasieran, kosta egin zitzaigun erritmoa hartzea, logikoki; hilabete batzuk generamatzan ohi dugun moduan entrenatu gabe". Astez aste, ahalik eta ongien lehiatzeko sasoi puntu hori berreskuratu dute jokalariek, eta, Solchagaren iritziz, taldea "oso ongi" dago orain, konpetitzeko prest. "Lehen 3-4 asteetan karga fisiko gehiago sartu dugu, eta hurrengoetan aspektu teknikoagoak lantzen hasi, jakin dugunean noren aurka jokatu dugun larunbatean".

UD Aldaia CF taldea izango dute aurrez aurre añorgatarrek.

Europarako txartela eta igoera

Futbol talde profesionalean diharduen lasarte-oriatar batek baino gehiagok gozatu ederra hartu du azken egunetan.

Unai Olaizola Realaren gizonzkoen taldearen material arduraduna da. Pasa den astean amaitu zuten Santander Liga, eta seigarren postuan geratu direnez txuri-urdirak, Europa League txapelketan jokatzeko txartela poltsikoratu dute. Gogotik ospatu dute zelai barruan zein kanpoan.

Bestalde, Huesca SD taldeak Santander Ligan jokatu du 2020-2021 denboraldian, kategoriaz igo ostean. Aurten utzita egon bada ere, talde horrek eduki du fitxatuta azken denboraldietan, eta ospakizunetan parte hartu du taldekideekin batera. Asteon jakinarazi du atezainak datorren denboraldian beste nonbait jokatu duela, Huescaren zeukan kontratua amaituta. Oraindik ez du iragarri non.



Reala, ospatzen. REAL SOCIEDAD

Solchagaren analisia: "Oso talde indartsua da, aurrealdean batez ere, gol asko sartu ditu eta oso gutxi jaso". Herritarrek dio neurketa "oso paretsua" izango dela, valentziarrek "talde oso ona" daukatelako, baina Añorgak ere bai. Denboraldiko datu batzuk: hamalau partida irabazi ditu, bi berdindu eta hiru galdu. Aurrean oso fin ibili da, 51 aldiz baloia sareetara bidaliz –partidako ia hiru gol sartu ditu– eta hamasei gol jasoz –norgehiagokako bat baino gutxiago–. Behin fisikoa eta teknika landuta, azken egunetan alor psikologikoa jorratzen ari dira, aurrean duten erronka ez baita makala. "Egia esan, luze egiten da, inoiz ez dugu izan horrenbeste denbora neurketa bakar bat prestatzeko", onartu du Solchagak. Egun handia iristear dago, eta taldeak "ikaragarriko gogoa" dauka partida jokatzeko.

Bi taldeek larunbat honetan neurtuko dituzte indarrak, 20:30etik aurrera, Madrilgo Las

Rozas futbol hirian. Partida streaming bidez eskainiko du Espainiako Futbol Federazioak, web orrialde honetan: <https://futbolfemenino.rfef.es/>. "Animatu nahi ditut herritarrek, ahal badute, gure neurketa ikustera, larunbat arratsalde baterako plan ederra izan daiteke", adierazi du Solchagak. "Uste dut Insausti tabernan jarriko dutela neurketa". Hortxe proposamena, irakurle.

Gaur abiatuko da espedizioa Madrilerantz, ostiralarekin, uztailak 24. Goizean azken saiotxo bat egingo dute, eta autobusa hartuko 15:30ean. Espero dute Madrilera 21:00etarako iristea. Hotelera joango dira, atsedean hartzera. Bihar ezagutuko dute zelaia, eta ordu batzuk beranduago bertan jokatu, 20:30ean esan bezala, Reto Iberdrola ligan jokatzeko txartel bat eskuratzeko. Gertatzen dena gertatzen dela, ezin uka denboraldi bikaina egin duenik Añorga KKEk. Ginga jartzea besterik ez zaio falta.

Artetxe, Zikuñaga Papelera txapelketako finalean

Intxurre elkarteko Irazustabarrena lagun, Eskudero eta Labakaren aurka jokatu du txapela, bihar

Txintxarri

Hernaniko Zikuñaga Papelera txapelketa finaletarantz iritsi da. Senior mailako norgehiagokan Intza elkarteko Jon Pello Artetxe izango da bihar lehen, Intxurreko Irazustabarrenarekin batera. Gaztelekuko Eskudero

eta Hernaniko Labaka izango dituzte aurrez aurre. Asteartean lortu zuen bikoteak txartela Salaberria hernaniarra eta Ortiz de Urbina antigarra 18 eta 16 garaituz.

2. Kadete mailan lehiatu den Urdanpilletak, ordea, ez du zorte

bera izan. Uztailaren 18an, larunbatekin, finaletatik kanpo geratu baitzen. Oiarpeko Zabaleta eta Aranbururi aurre egin behar izan zien gaztetxoak Manterola hernaniarrarekin bikote osatuta eta 18-10 galdu zuten.

Bestalde, Axier Arteaga Arteaga II.a lasarte-oriatarrek ezin izan zuten bere partida irabazi, Lizartzan. Salaverri II.a bikote zuela, ezin izan zituzten Peio Etxeberria eta Erostarbe gainditu, 12-22.

Mendiaz gozatzeko festa

Irailaren 27an, II. Mendi Festa antolatu du Lasarte-Oria Trail kirol elkarteak. Aurten maila ezberdinetara egokitutako hiru ibilbide eskaintzen ditu. Izen-ematea Kirolprobak orrialdean egin behar da irailaren 26a baino lehen. Orrialde horretan edo kirol elkarteko sare sozialetan eta webgunean festari buruzko informazioa dago eskuragarri.





Udako ikastaro bete-betean harrapatu ditu TXINTXARRI-k, asteazken goizean, LOKEko gimnastak. TXINTXARRI

Ikasturte berria antolatu ezinik, baina udan lanean

30 gimnasta ari dira LOKEk antolatutako udako ikastaroan. COVID-19ak eragindako egoerak ezjakintasun handia eragin dio taldeari, eta ziurgabetasunez aurreikusten dute ikasturte berria. Michelingo frontoi estalian ari dira udako saioak egiten

Txintxarri

Ezohiko udako ikastaroan murgilduta daude LOKEko gimnastak; 2019-2020 kurtsoa uste baino lehenago utzi behar izan zuten bertan behera koronabirusak eragindako pandemia medio, baina lortu dute udako saioei eustea. Hori bai, ez urteroko formatu berean; gimnasta kopuru mugatuarekin ari dira lanean, Michelingo frontoi estalian, eta segurtasun neurri guztiak jarraituz.

Itxialdia pasata, hogeitertsonako taldea osatzeko baimena eman zietela azaldu du Maite Rueda LOKE gimnastikako arduradunak, eta handik pixka batera, 30era zabaltzeko aukera, beti ere segurtasun distantziak mantenduz, materiala desinfektatuz, eta abar. "Bakoitzak bere materiala ekarri behar du saioetara".

Udako kurtsoa egiteko aukera izatearekin konforme agertu da Rueda: "Momentuz nahikoa izan da aukera hau edukitzea; ikasturte berriari nola ekingo

diogun ezin dugu jakin oraindik". Irailero hasi ohi du LOKE gimnastikak ikasturte berria, normalean 70 bat kidearekin.

Aurtengo udako ikastaroa, berriz, parte-hartzaile kopuru jakin batentzat eskaini behar izan du taldeak. Horregatik, erabaki dute ikasturtean zehar lehiaketetan parte hartuko duten kideei zuzentzea uztaileko saioa. Astean bi eguneko elkartzan dira Michelingo frontoian, eta saio bakoitzean bi orduz entrenatzen dira.

Adin eta kategoria ezberdinetako parte-hartzaileak daudenez, bakoitzaren eharretara egindako "entrenamendu espezifikoa" egiten ari dira egunotan: "Gimnasta guztientzako beroketa saio orokor batekin hasten ditugu


30 GIMNASTA PARTE HARTZEN ARI DIRA LOKEK UZTAILERAKO ANTOLATU DUEN UDAKO IKASTAROAN

entrenamenduak, eta horren ostean adin eta kategoria bakoitzak bere ariketa espezifikoa egiten ditu". Horrela topatu ditu TXINTXARRI-k, asteazken goizean Michelingo frontoira egindako bisitan; ikasle danak, segurtasun distantziak mantenduta, Maite Rueda eta Aizpea Arroyo entrenatzaileek gidatutako saioan.

Uztailaren 6an hasi zuten udako ikastaroa, astelehenarekin, eta datorren asteazkenean egingo dute azken saioa, uztailak 29.

Entrenatzaile ikastaroak, online

Udako ikastaroan parte hartzen ari diren kideez gain, dozena erdi bat gimnasta ere aurkitu ditu TXINTXARRI-k Michelingo frontoi estaliaren beste ertzean. Horiek gimnastikako entrenatzaile izateko bigarren mailako kurtsoa prestatzen ari direla azaldu du Ruedak. "Getxon egon beharko lukete, hamabost eguneko eta eguneko 10 orduz entrenatzaile izateko saioetan, baina koronabirusaren ondorioz, online egiteko aukera besterik ez zaie egokitu aurretik".



Sasoeta auzoko Urdaburu plazan jarri dute kalistenia egiteko gunea. UDALA

Kalistenia egiteko gune bat instalatu dute Urdaburu plazan

Oriako Antxisu auzoko kirol pistan ere hobekuntzak egin dituzte. Kirol ekipamenduetan inbertsioa egin du udalak

Txintxarri

Muskuluak landu eta indarra hartzeko gune bat ezarri du udalak Sasoeta auzoko Urdaburu plazan: kalistenia izeneko diziplina praktikatzeko parke bat. Jakinarazi du laneak 20.047,58 euroko kostua izan dutela. "Herritarrek kalean kirola egin ahal izateko beste gune bat da". Udalak nabarmendu duenez, lasarte-oriatarrek eginiko eskaera bati erantzun diote parke horrekin. "COVID-19aren pandemiagatik Alarma Egoera dekretatu aurreko egunetan amaitu ziren obrak, baina ezin izan dugu ireki harik eta osasun agintariak horretarako aukera eman diguten arte".

Kalistenia parkea eraikitzeo, pare bat kontratazio egin ditu udalak: Parkeko elementuak Jolas enpresari adjudikatu

dizkio, 9.339 euroan. Guneko segurtasun zoladura, aldiz, Juegos Infantiles Monpark SL enpresak egokitu du, 10.709 euroan.


Beste inbertsio batzuk

Oriako Antxisu auzoko kirol pistan zenbait hobekuntza egin ditu udalak. Baloiak esparru horretatik irteera eragozteko, sare perimetral bat jarri du; 4.178 euroko kostua izan dute laneak. Horrez gain, udal zerbitzuek argiz hornitu dute kirol azpiegitura hori. Sakagailu baten bidez aktibatzen da argiztapena.

Kiroldegiko eremu kardiobaskularreko bederatziz bizikleta estatiko ere aldatu ditu. Tresna horiek Argysan eta Kirol Aukera enpresei erosi dizkie, 15.685 euroren truke.

Udako denboraldiko zaldi lasterketez betetako asteburuak

Donostiako Hipodromoan, Udako denboraldiko zazpigarren jardunaldia jokatu zen pasa den igande arratsaldean. Guztira bost lasterketa ikusteko aukera izan zuten bertaratutako zaleek. Sari nagusia *Hotel Viura* izan bazen ere, aurretik EBF, Onda Cero, Asenel eta Araeta sagardotegia sariak ere jokatu zituzten. Igande honetan, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Piztu Kultura* saria jokatu da.



Artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

Donostia Arraun Lagunak, ezin lehiatu

Arraunlari batek positibo eman du PCR proban eta Lugañeneko eskifaia ezin izan da Orion lehiatu. Osakidetzaren proben emaitzen zain, asteburu honetan ere ezingo dira uretara atera. KAE2 mailan, Hibaika Susperregik lehenen artean egotea du helburu

Txintxarri

Arraun denboraldia aurrera doa, nahiz eta COVID-19aren lehen agerraldia bizi zuten lehengo asteburuan. Donostia Arraun Lagunak eskifaiaiko arraunlari batek positibo eman eta trainerua ezin izan zen igandean lehiatu.

Senide batek positibo eman ostean, Donostia Arraun Lagunak elkarteko arraunlaria ostegunean konfinatu zen; ostiralean egin zioten proba eta larunbat gauean jakin zuen emaitza.

Emaitzaren zain, larunbatean Aiora Belartieta eta bere kideek Getxoko uretan arraun egin eta hirugarren postua eskuratu zuten.

Donostiarrak Lacturale traineruaren 3 segundoko zigorrarekin hasi zen jardunaldia, Donostiako eskifaia irteera baliozkoa egin zuela erabaki baitzuten epaileek.

Bigarren irteeran, Oriok hartu zuen aurrea. Donostiarrak Lacturale atzetik zuen. Lehen postuaren bila zihoan Donostiako taldea baina oriotarrek ederki mantendu zuten lehen paladetan lortutako tarteak.



Donostia Arraun Lagunak, Getxoko proban lehian. A. ARRIZABALAGA

Atzean Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertoko igogailuak izan ziren lehian, berriro ere. Belartieta eta bere kideek Hondarribiako taldea atzean utzi zuten irteeran eta Donostiarrak Lacturaleren zigorra kontuan izanik, bigarren postuaren bila joan ziren. Tamalez, helmugan 11.01,48 egin zuten, Donostiarrak metatutako denboratik 2 segundora.

Larunbata gauean eman zitzaion TKERi positiboaren berri eta protokoloa martxan jarri zen.

Ezin lehiatu

Arraunlariak konfinatu zituzten eta Lugañeneko eskifaia ezin izan zen Orioko sarian egon.

Ligari dagokionez, aurreko jardunaldietan lortutako puntuen batz bestekoa gehitu zitzaion.

Asteartean, Donostia Arraun Lagunak elkartek PCR probak egin zizkien arraunlariari eta emaitza negatiboak izan dituzte.

Baina Osakidetzak ez ditu emaitza horiek baliozkotzat hartuko eta larunbatean, bihar, probak egin beharko dituzte. Emaitzak igande goizera arte jasoko ez dituztenez, Donostia Arraun Lagunak-eko kideek eta Aiora Belartieta herritarrek ezingo dituzte asteburu honetako bi jardunaldiak jokatu.

Osasun neurriak

Igandean, Getarian jokatu zen KAEko jardunaldian ere eragina izan zuen COVID19-ak, KAE1 mailako Zumaiako ohiko patroiak ezin izan baitzuten parte hartu.

Gaizka Ormazabal herritarra KAE2 mailako Hibaika Susperregi traineruan ari da eta taldeek jarraitu beharreko neurri batzuk azaldu dizkigu. "Taldea bakoitzak bere esparrua du, eta bertatik ezin gara mugitu uretara joan arte. Beraz, arraunlari bakoitzak jokaera arduratsu bat badu, ez dago horrenbesteko arriskurik".

Eta protokoloa ere argitu digu. "Printzipioz, positibo bat egonez gero, talde osoa bakartzen da. 48 ordu igaro eta gero COVID19-aren proba pasa behar dute taldekide guztiek. Positibo gehiagorik ez badago lehiaketara itzuli daitezke".

Arraunean lehendabizikoz

Ormazabalek lehen urtea du Errenteriako eskifaian, baita arraunean ere. Urrian hasi zen lanean, Imanol Cascante entrenatzailearen esanetara.

"Lesio bat dela eta ergometroan hasi nintzen orduak sartzen eta

arrauna betidanik gustatu zaidanez, Hibaikan hastea erabaki nuen", aipatu du herritarrek.

Entrenatzen hasi eta hilabetetara, ordea, larrialdi egoera ezarri zen eta etxean entrenatu behar izan zuen. "Hibaikak arraunlari bakoitzari ergometro bat utzi zion eta entrenatzaileak bidalitako entrenamenduak bakoitza bere etxean egiten joan ginen. Lan saioak eramangarriago egiteko bideo deiak egiten genituen gainera", azaldu du Ormazabalek.

Talde berria osatu du Cascantek denboraldi honetarako eta hiru hilabetez etxean jardun beharrek taldearen garapenean eta lehen emaitzetan eragina izan ahal izan duela uste du herritarrek. "Nahiko talde berria garenez, etxean egon behar izan garen hilabeteek seguruenik beste taldeei baino kalte gehiago egin digute blokea osatzeko garaian".

Uztailaren 11n eman zioten hasiera denboraldiari Pasai Donibanen eta 9. postua eskuratu zuten; asteburu honetan, berriz, Getarian 10. izan ziren. "Bi estropada egin ditugu eta lortutako emaitzak ez dira esperotakoak izan. Ondo entrenatzen gabiltza baina oraingoz emaitzak ez dira irten", nabarmendu du.

Hala ere, Hibaika Susperregi taldearen helburua KAE2ko sailkapenean goiko postuetan egotea dela aipatu digu. Eta asteburu honetan, hori erakusteko aukera bikoitza izango du Errenteriako eskifaia Getaria eta Pasai Donibaneko uretan jokatu diren Mutrikuko Yurrita Group eta 700. Errenteriako Udala banderetan.

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideak lehian dira

Lizarran eman diote hasiera denboraldiari eta lehen hamarren artean sailkatu dira taldeko txirrindulariak

Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek uztailaren 19an eman zioten hasiera etenaldiaren osteko denboraldi berriari.

Lizarran jokatu zen proban, 90 kilometrotako ibilbidea egin zuten gazteek eta lehen hamarren artean iritsi ziren eskolako kideak. Asier Pozo 6. izan zen, Haimar Etxeberria 7. eta Beñat

Carbayadak, berriz, 8. postua eskuratu zuen.

Taldeko kideek azaldutakoaren arabera, txirrindulariek musukoak eraman behar izan zituzten irteera momentura arte eta helmugara iristean, berriro ere jantzi.

Buruntzazpiko kideak denboraldiarekin aurrera egiteko desirarekin daude, baina esate

baterako, uztailaren 27a, astelehenarekin, Aizarnazabalen egin behar zen Erlojupeko Gipuzkoako Txapelketa bertan behera geratu da.

"Ulergarria da Gipuzkoan dauden agerraldiak direla eta, erlojupekoa bertan behera uztea, baina pena handia da. Izan ere, neurriak kontu handiz jarraitu baitaitezke bakarkako erlojupekoan. Txirrindularia bakarrik doa eta kutsatzeko aukera bakarra du, beste baten aurreratzea. Lehiatzen ez denean musukoarekin egongo dira", azaldu dute elkarteko arduradunek.

Agerraldiek jarraituz gero, Gipuzkoan lehiaketarik egingo



Buruntzazpiko kideak, Lizarrako helmugara iristen. MARTIN EARLY

ez denaren susmoa dute. "Hala ere, esperantza dugu eta txertoa edo sendagaia lortu arte normalitate berria izatera iritsiko garela uste dugu", nabarmendu dute.

Era honetara, ondo bidean, abuztuaren 14an, Berriatuan egingo den Euskadiko Txapelketarako prestatzen ari dira Buruntzazpiko txirrindulariak.

ZORION AGURRAK



Itsaso
Zorionak Itsaso!! Muxu asko etxekoan partetik. Askok maite zaitugu!!



Alba
Zorionak Alba!! 7 urte!! Oso handia egin zara. Ondo pasa eta muxu asko familiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralera Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 24




Larunbata, 25




Igandea, 26




Astelehena, 27




Asteartea, 28



Asteazkena, 29



Osteguna, 30



JAIOTAKOAK

Markel Cendoya Garcia. Uztailaren 18an.

HILDAKOAK

Jesus Gonzalez Nuñez. Uztailaren 21ean.

Constancio Melchor Moneo. Uztailaren 20an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 24	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 25	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 26	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 27	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 28	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 29	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 30	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:	LARRIALDIKO TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629	OSASUN ZENTROA: 943 007 960
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184	DYA: 943 464 622
KIROLDEGIA: 943 376 182	GURUTZE GORRIA: 943 363 953
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181	UDALTZAINAK: 943 362 442
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179	ERTZAINAZA: 943 538 840
KIUB: 943 361 605	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621	
MUNTTERI AEK: 607 625 233	

SUDOKUA

	8			9		2		
				8				
9		2	5	4	1			
3	6	7			5			
					6	3		
5		1		3			6	2
7		8		5		9		
		6	7		9	8		4
		9		6	8		1	

OHARRAK

Udako ordutegia kirol instalazioetan

Lasarte-Oriako Udalarenak diren instalazioak ez dira itxita egongo udan zehar, aurten ez baitute geldialdi teknikorik egingo azpiegituren mantenurako. "Pandemiaren ondorioz instalazioak jendearentzat itxita egon diren bitartean, Udaleko Kirol Zerbitzuko langileek geldialdi teknikoetan egiten diren lanak aurreratu dituzte: igerilekuko instalazioak hustu, garbitu eta desinfektatzea, baita legionella prebenitzeko protokoloari dagozkionak ere", azaldu du udalak.

Hori kontuan hartuta, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko ordutegien berri eman du udalak. Kiroldegia 07:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 22:00etara irekiko dute, eta 09:00etatik 14:00etara larunbat eta igandeetan. Igerilekuaren ordutegia, berriz, hau izango da: 07:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 21:30era astegunetan, eta 09:00etatik 14:00etara asteburuan.

Michelin kirol-gunea 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 22:00etara zabalduko dute astelehenetik ostiralera, eta 09:00etatik 13:00era larunbat goizetan, eta arratsaldeetan itxi. Igandeetan itxi egingo dituzte instalazio horiek.

Maialen Chourraut kiroldegiko instalazioak erabiltzeko beharrezkoa da aurrez hitzordua hartzea, 943 376 182 telefonora hots eginda. Erabiltzaileek etxetik eraman beharko dituzte maskara, toaila eta kirola egiteko arropa. Makina bakoitza erabili ondotik desinfektatu egin beharko dute. Ekainaren 8tik daude zabalik udal kiroldegiko zenbait gune.

txintxarri

Hurrengo Txintxarri paperean uztailaren 30ean (osteguna) argitaratuko dugu, ikasturteko azkena izango da.

Oporretatik bueltan, irailaren 4an kaleratuko dugu lehena

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Hurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balituzkete ere prest egongo ginateke laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauetara: 688 777 280 edo 610 325 280.

Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuetarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

27 urteko neska euskalduna abuztuan haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Haur Hezkuntzan graduatua. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 757 287.

Haurrak zainduko nituzke, irailetik aurrera,

ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. 943 376 115/615 645 126.

Etxea partekatzeko neska baten bila gabiltza. Interesatuok jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da Lasarte-Orian bizi den familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALEROSKETAK

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.



EROSI

Bigarren eskuko ondo dagoen bizikleta hartuko nuke 3-4 urteko ume batentzat. 687 35 50 95.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatazaileak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Haur ikuskizuna

Piraten istorio bat. Keinuen bidezko ikuskizuna, arina, dibertigarria eta familian gozatzekoa. Itsaso zakarraren gorabeherak, gauaren magia eta adiskidetasunaren botereaz ohartuko dira ikusle txikiak bidai honetan.

Gaur, Andatza plazan, 19:00etan.

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA Haur ikuskizuna

Piraten istorio bat. Keinuen bidezko ikuskizuna, arina, dibertigarria eta familian gozatzekoa. Itsaso zakarraren gorabeherak, gauaren magia eta adiskidetasunaren botereaz ohartuko dira ikusle txikiak bidai honetan.

Andatza plazan, 19:00etan.

HERNANI Musika

Ainhoa Larrañaga eta bandak kontzertua eskainiko du. Gonbidapena behar da. Biteri kultur etxean eskuratu behar dira txartelak, 09:00etatik 14:00etara.

Atsegindegi plaza, 20:00etan.

USURBIL Kultur Bira

Odolaren Mintzoa taldeak kontzertua eskainiko du. Aginagako eliza zaharra, 20:00etan.

ASTIGARRAGA Musika

ZETAK taldeak emanadia eskainiko

du. Emanaldia doakoa da, baina sarrera behar da. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke. **Erriberako estalpea, 21:00etan.**

ANDOAIN Musika

Xabi Bandinik eta bere taldeak BIBA! lan berria aurkeztuko du. Sarrera doan gonbidapenarekin. Bastero kuturgunean eskuratu ahaliko dira gonbidapenak emanaldia hasi baino bi ordu lehen. **Ondarreta ikastetxeko patioa, 22:00etan.**

LARUNBATA 25

HERNANI Dantza tailerra

6-12 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzendutako dantza tailerra izango da. Sarrerak 6 euro balio ditu. Txartela alde aurretik erosi behar da Biteri kultur etxean, 09:00etatik 14:00etara.

Chillida leku, 11:00etan.

ASTIGARRAGA Dantza

Romanesca elkarteko dantzarien emanaldia izango da. Errumaniako dantzak eskainiko dituzte. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke.

Txomiñenea pilotalekua, 12:00etan.

ASTIGARRAGA Musika

Tenampas mariatxiak emanaldia eskainiko du. Emanaldia doakoa da, baina sarrera behar da. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke. **Erriberako estalpea, 13:00etan.**

ASTIGARRAGA Antzerkia

Markeliñek familia guztiari zuzendutako *Chef Nature* lana eskainiko du. Emanaldia doakoa da, baina sarrera behar da. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke.

Erriberako estalpea, 17:00etan.

ASTIGARRAGA Dantza

ASTIGAR elkarteko eta Lizartzako dantzarien emanaldia izango da. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke.

Txomiñenea pilotalekua, 18:00etan.

USURBIL Kultur Bira

Andoni Egaña, Maialen Arzallus, Jexux Mari Irazu eta Mantxi bertsolariek saioa eskainiko dute. Gai-jartzaile lanetan Zortzitan Bertso Eskolako kideak izango dira. **Zubietako plaza, 19:00etan.**

ASTIGARRAGA Sagar Kultur

Gaztea lehiaketako Kilimak talde irabazleak kontzertua eskainiko du. Sarrerak: adin txikiak 3 euro eta helduek 6 euro.

Astarbe sagardotegiko terraza, 22:30ean.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA Santa Ana Eguna

Usadioari jarraiki, Santa Anaren omenezko meza 11:00etan. Eguerdian, Erketz EDTko lagunek Karkaban dantza egingo dute. 22:00etan Santa Ana Parodia kultur etxean.

Igandea 26, Lasarte-Orian

ASTIGARRAGA Dantza

Kukai dantza taldeak Fair Play ikuskizuna eskainiko du. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke.

Txomiñenea pilotalekua, 13:00etan.

USURBIL Kultur Bira

Tio Teronen Semeak dantza-taldeak *Freshcool* umorezko ikuskizuna taularatuko du.

Zubietako plaza, 19:00etan.

ASTIGARRAGA Sagar Kultur

Bakean dagoena bakean utzi bakarrizketa eskainiko dute Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraiak. Sarrerak: adin txikiak 3 euro eta helduek 6 euro. Sagar Kultur egitasmoaren baitako emanaldia izango da.

Astarbe sagardotegian, 15:30ean.

ASTIGARRAGA Ikuskizuna

Oihulari klownek eskainitako *Gabe* familia ikuskizunaz gozatu ahaliko da. Emanaldia doakoa da, baina sarrera behar da. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke.

Erriberako estalpea, 17:00etan.

ASTIGARRAGA Bertso saioa

Ez da kasualitatea emakumezkoen bertso saio musikatu egingo da. Txartelak online www.astigarraga.eus helbidean edo kultur etxean eskura daitezke.

Txomiñenea pilotalekua, 19:00etan.



LASARTE-ORIA SANTA ANA EGUNA

Usadioari jarraiki, Santa Anaren omenezko meza 11:00etan izango da. Eguerdian, Erketz EDTko lagunek Karkaban dantza egingo dute. 22:00etan hasita, Santa Ana Parodia kultur etxean. **Igandea 26, Lasarte-Orian 11:00etatik aurrera.**

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus

Gozatu udara! Jan etxetik kanpo

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586 
 www.electricidadarregui.com
 tienda.electricidadarregui.com
 (on-line denda)

- Janaria eta edaria hotz edo bero mantentzeko
- Aukera zabala

KAMBUKKA

• Plantxa elektriko eta indukziokoak

Neopreno maskarak
 3-6 urte
 6-12 urte
 Helduak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

EZ EGIN UKO EZERI
 AUKERATU MÓ

MERKEALDIA

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Kale Nagusia, 15
 Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

uztailak 26

11:00etan
 Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan.

12:00etan,
 Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

22:00etan,
 Santa Ana parodia.
 Manuel Lekuona kultur etxean

SANTA ANA 2020

695 78 53 89
 kultura@ttakun.eus